



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/03/07

Enkarterriko Museoak, industrializazioa zala eta eregi ziran eskualdeko eraikin enblematikoak erakusten ditu “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketan

Zaharren Miranda Egoitza eta Munoa Jauregia Barakaldon, Gueñeseko edo Santurtziko Udaletxeak, Gordexolako, Sopuertako eta Karrantzako etxe indianoak edo Portugaleteko batzokia dira Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterriko Museoan gaur inauguratu dan “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketak jasoten dituan eraikin enblematikoetako batzuk. Erakusketea, Gorka Pérez de la Peña Oleaga historialariak bost urtez egin dauen ikerketa lanaren emaitzea da. Bere lan zorrotzaren beste emaitzea, erakusketeagaz batera, izenburu bera daukan eta gaur aurkeztu dan liburua da.

Ikerketa lan horrek, 1870 eta 1975 artean Enkarterrin eregitako eraikin guztien inbentarioa jasoten dau, eskualdea modu zabalean eta historikoan ulertuta, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko udalerriak barru hartuta. 20 udalerritan dagozan 1.300 eraikin dira guztira, eta horreetatik 500 liburuan jasota dagoz. Batzuetan oso ezaguna ez dan arren, arkitekturaren ondore hori Enkarterriko eta baita Bizkai osoko eta Europa mailako ondarearen elementu garrantzitsuenetakoa da.

Erakusketea, bere aldetik, holango arkitektura moietaren elementu adierazgarrietako batzuk erakusteko dago kontzeptualizata. Amaia Garate Olano eszenografoak diseinata, eraikin azpimarragarrietako batzuen argazkiak jasoten ditu, eta irudiakaz, planoakaz, koadruakaz, beirategiakaz, azulejuakaz eta hormatan agertzen diran beste arte elementu batzukaz batera dagozan bitrinak eta piezak daukaz.

Garatek holan antolatu dau erakusketea, hamarkada luzez etxe askotako kamaratan gordeta eta baten batek berreskuratu arte ahaztuta egon diran baliozko elementuak gogora ekarten deuskuezan kaxa handiakaz. Hori da ikerketa lanaren eta bere emaitza bikotxaren, erakusketea eta liburua, helburua: Enkarterriko ondare arkitektonikoa balioan jartea eta Bizkaia osoan ezagutuazotea.

Erakusketea eta argitalpena Enkarterriko Museo ederra, berez be historiarako bizi dan artelana, urteetan egiten ari dan ikerketa eta historiografia lanaren barruan dagoz. Museoa, mende luzez foru gobernuaren egoitza izan zan Avellanedako Batzarretxe zaharra da.

Sopuertan dagon eta Javier Barriok zuzentzen dauen museoa Bizkaiko Batzar Nagusien esku dago, eta Enkarterriko ondare historikoa, kulturala eta etnografikoa zabaltzeko behar handia egiten dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Helburu horregaz, eta ohikoa danez, museoak liburuaren ehun ale baino gehiago bialduko ditu museoetara, liburutegietara, unibersidadeetara eta beste kultur gune batzuetara, eta salgai be jarriko dau. Museoan bertan erosi ahal izango da.

Erakusketea eta liburua, Enkarterritik pasealdi bat emotean ikusi ahal doguzan estilo nagusien inguruan egituratzen dira: eklektismoa, neoeskalduna, modernismoa, erregionalismoa, art déco, errazionalismoa, gerraosteko errazionalismoa eta estilo nazionala, 50eko hamarkadako modernidadea, funtzionalismoa eta organizismoa.

“Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketan batutako estiloak XIX. mendearen bukaeratik XX. mendearen bukaerara eregi ziran, industrializazioaren inguruan. Eskualdeko biztanleak bizi izan ziran etxeak, otoitz egin eben eleizak, sendatu ziran ospitaleak eta behar egin eben lantegiak dira, denporaren iraganari aurre egiten deusien eta gure herrietako eta urietako egungo paisajea osotzen daben eraikinak, hain zuzen be.

Erakusketea bihar zabalduko da jentearentzat, eta irailaren 29ra arte egongo da zabalik. Erakusketara egingo diran bisita gidaez aparte, Enkarterriko Museoak hainbat jarduera pedagogiko antolatuko ditu, horreen artean, Gorka Pérez de la Peña Oleagaren ikerketa lanean jasotako eraikin enblematikoak lekuan bertan ikusi ahal izateko ibilpideak.

ERAKUSKETA “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira”

Inaugurazinoa: Martiaren 7a, eguena, 18:30etan
Martiaren 8tik Irailaren 29ra arte

Enkarterrietako Museoa
Abellaneda auzoa, z/g (Sopuerta-Bizkaia) 48869
Tfnoak: 94 650 44 88 / 94 610 48 15
Emaila: enkartermuseoa@bizkaia.eus

Ordutegia (Martiaren 8tik bagilaren 30ra)
Martitzenetik zapatuta: 10:00-14:00 eta 16:00-18:00
Domeka eta jaiegunetan: 10:00-14:00
Astelehenetan itxita

Ordutegia (Garagarrilaren 1etik irailaren 29ra)
Martitzenetik zapatuta: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00
Domeka eta jaiegunetan: 10:00-14:00
Astelehenetan itxita

Sarrera doan

www.enkartermuseoa.eus
www.jjgbizkaia.eus



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

07/03/2019

El Museo de las Encartaciones muestra emblemáticos edificios de la comarca contruidos al albur de la industrialización en la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”

El Asilo Miranda y el palacio Munoa en Barakaldo, los Ayuntamientos de Güeñes o Santurtzi, las casas indianas de Gordexola, Sopuerta y Carranza o el batzoki de Portugalete son algunos de los edificios emblemáticos que recoge la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”, que se ha inaugurado hoy en el Museo de las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia. Esta nueva muestra es fruto del trabajo de investigación realizado durante cinco años por el historiador Gorka Pérez de la Peña Oleaga. El resultado de su minucioso trabajo es, junto a la muestra, un libro con el mismo título que también se ha presentado hoy.

Este trabajo de investigación recoge un inventario de todos los edificios contruidos entre 1870 y 1975 en Las Encartaciones, entendienddo esta comarca en un sentido tan amplio como histórico e incluyendo los municipios de la margen izquierda y zona minera. Son un total de 1.300 edificios -localizados en 20 municipios- y de los cuales 500 están recogidos en el libro. Aunque en ocasiones poco conocido, este acervo arquitectónico es uno de los más importantes elementos del patrimonio, no sólo de Las Encartaciones, sino de toda Bizkaia e incluso a nivel europeo.

La exposición, por su parte, está conceptualizada para mostrar algunos de los elementos más relevantes de este tipo de arquitectura. Diseñada por la escenógrafa Amaia Garate Olano, incluye fotografías de una selección de los edificios más destacados y contiene grandes muros de cartón que acogen vitrinas y piezas que conviven con las imágenes, los planos, cuadros, vidrieras, azulejos y otros elementos de artes decorativas que aparecen expuestos en la pared.

Garate ha dispuesto así la exposición, con grandes cajas de cartón que nos retrotraen y hablan de aquellos elementos de valor guardados durante años en las ganbaras de tantas casas, olvidados durante décadas hasta que alguien los rescata. Es el objetivo de este trabajo de investigación y de su doble resultado, la exposición y el libro: poner en valor el patrimonio arquitectónico de Las Encartaciones y darlo a conocer a toda Bizkaia.

La exposición y la publicación se enmarcan dentro de la labor investigadora e historiográfica que lleva años realizando el precioso Museo de las Encartaciones, una obra de arte en sí misma que vive por y para la historia. Este museo es la antigua Casa de Juntas de Avellaneda, centro del gobierno foral durante siglos.

Ubicado en Sopuerta y dirigido por Javier Barrio, este centro museístico perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, realiza una importante labor de difusión del patrimonio histórico, cultural y etnográfico de Las Encartaciones.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Con ese objetivo y como es habitual, el museo enviará más de un centenar de ejemplares del libro a museos, bibliotecas, universidades y otros centros culturales y pondrá a la venta el libro, que se puede adquirir en el propio museo.

Tanto la exposición como el libro se estructuran en torno a los grandes estilos que podemos contemplar dando un paseo por Las Encartaciones: eclecticismo, nevasco, modernismo, regionalismo, art déco, racionalismo, racionalismo de posguerra y estilo nacional, modernidad de los 50, funcionalismo y organicismo.

Los edificios reunidos en “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea” fueron construidos entre finales del siglo XIX y finales del siglo XX, al albur de la industrialización. Son las casas en las que vivieron, las iglesias en las que rezaron, los hospitales en donde se curaron, las fábricas donde trabajaron durante años antiguos y antiguas habitantes de la comarca, edificios que resisten el paso del tiempo y que conforman el paisaje actual de nuestros pueblos y ciudades.

La exposición estará abierta al público desde mañana, 8 de marzo, hasta el próximo 29 de septiembre. Además de visitas guiadas a la exposición, el Museo de las Encartaciones organizará, diversas actividades pedagógicas, entre ellas, rutas para poder contemplar *in situ* los edificios más emblemáticos recogidos en el trabajo de investigación de Gorka Pérez de la Peña Oleaga.

EXPOSICIÓN “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”

Inauguración: Jueves 7 de marzo, 18:30 horas

Del 8 de marzo al 29 de septiembre

Museo de las Encartaciones

Barrio Abellaneda, s/n (Sopuerta-Bizkaia) 48869

Tfno: 94 650 44 88 / 94 610 48 15

Email: enkarterrimuseoa@bizkaia.eus

Horario (Del 8 de marzo al 30 de junio)

De martes a sábado: 10:00-14:00 y 16:00-18:00

Domingos y festivos: 10:00-14:00

Lunes cerrado.

Horario (Del 1 de julio al 29 de septiembre)

De martes a sábado: 10:00-14:00 y 17:00-19:00

Domingos y festivos: 10:00-14:00

Lunes cerrado

Entrada gratuita

www.enkarterrimuseoa.eus

www.jjggbizkaia.eus